

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Txosten batek erakutsi du familia-ingurunean hizkuntza estimulatzeak eskola-errendimendua igotzen duela

*Dokumentuak agertzen du 60 puntuko aldea dagoela eskolaurrean irakurtzeko eta idazteko trebeziak garatu zituzten ikasleen alde*

Martes, 07 de enero de 2014

Hezkuntza Departamentuak eta Hezkuntza Ebaluatzeako Institutu Nazionalak egindako [txosten](#) batek agerian utzi du eskolaurreko adinetan familia-ingurunean hizkuntza estimulatzeak ikasleen eskola-errendimendua igotzen duela.

Dokumentuak azken PIRLS (Irakurmenean Aurrera Egindako Nazioarteko Azterketa) azterketaren emaitzak aztertzen ditu. Lehen hezkuntzako laugarren mailako ikasleei egiten zaie, eta, haren arabera, eskolaurrean irakurtzeko eta idazteko trebeziak garatutako ikasleek emaitza hobekak zituzten.

Espainiaren kasuan, aldea 60 puntukoa zen irakurketa eta idazketako jarduera goiztiarrak egin zituzten ikasleen alde. Haiak 538 puntura heldu ziren, eta alfabetoa ezagutzen ez zutenak, berriz, 478ra.

Estimulazio hori egin daiteke liburuak irakurriz, istorioak kontatuz, une jakin batean egiten dena hitzez adieraziz eta haurrak idatzizko kodeak ezagutuz hitz-jokoen bidez edo kartelak nahiz etiketak ozen irakurriz.

### Eskola-arrakastaren bermea

Hezkuntza Departamentuak gogoratu du esku-hartze goiztiar batek eskola-porrotak ekidin ditzakeela ondoren. Adituek diotenez, irakurketa funtsezkoa da eskola-arrakasta bermatzeko, irakaskuntzaren oinarria baita. Lehen hezkuntzako bigarren mailara arteko xedea irakurtzen ikastea bada, hirugarren mailatik aurrera ikasteko irakurtzea da.

Horregatik, Hezkuntza Departamentuak irakurketa plan bat abian jarri du eta, haren bitartez, zentroak eta familiak animatu nahi dira gehiago inplika daitezen, alde batetik, irakurtzeko ohitura garatzen, eta bestetik, irakurtzeko nahiz idazteko trebeziak hobetzen.

Plan horren esparruan, iragan ikasturtean bikoteka irakurtzeko esperientzia ezarri zen lehen hezkuntzan. Parte hartutako zentro guztiek egiaztatu zuten ikasleek beren irakurketa-maila hobetu zutela. Hurrengo helburua familiak jarduera horretan inplika daitezen da.

Hezkuntza Departamentutik adierazi dutenez, garrantzitsuena ez da irakurketa irakasteko hautatu den formatua (paperean edo gailu elektronikoak erabiliz, tableta edo e-book-a, adibidez), baizik eta haurrek irakurketari aurre egiteko erabiltzen dituzten buruko trebeziak eta

estrategiak.